

Gure eskuetan baino ez dago| Solo depende de nosotr@s

JON KEPA PRECIADO IZARRA, EUSKAL PRESO POLITIKOA. :: 17/01/2018

[Euskara]

Militante kontsekuentea izatea ez da erreza, are gutxiago giltzapean, sakabanatuta eta zure etsaiaren esku zaudenean. Munduko edozein tokitan, preso politikoak daudela entzutea irauten duen gatazka politiko bat dagoela ulertzea da, askatasun faltak, benetako demokrazia faltak eragindakoa, eta klase batek herriaren gehiengo handiaren aurka darabilen dominazio faxista eta patriarkal horren existentziagatik.

Hau hemen jende konprometitua ere badagoelaren seinale da, antolatu dena eta esfortzuari esker aurrera jo egin eta jotzen duela, duintasunez, koherentziaz, bere oraina eta etorkizuna arriskutan jartzen, baita bere bizitza ere, klase moduan dituen eskubideak eta duintasuna defendatzeko borroka iraultzailea, errebolta eta desobedientzia aukeratzean, herri bezala bizirauteko eta faxismoaren aurrean eremuak irabazteko.

Horrenbestez, preso politikoen existentziak zapalkuntza, errepresioa eta salbuespen legeak existitzen direla adierazten digu, haren guztiaren kontrako defentsa, erantzuna eta borroka ere existitzen dela ulertarazi behar digun bezalaxe, eta baita konpromisoak atxilotuak, torturatuak eta urte askoz espetxeratuak izatera eramane zituzten helburuen lorpenaren markoan ere.

Polizi eta espetxe errepresioaren aurkako borroka partikularrak, beste batzuek bezala, sufritzen dugun nazio eta klase errepresioaren aurkako borrokari lotuta joan behar du. Ezin da bata bestearengandik bereizi, ezin da "osotasuna" desintegratu. Deskonposaketa honek borroka eremu ezberdinen despolitizazioa dakar, haietan euren oinarriarekin eta arrazoi politikoarekin ematen diren aldarrikapenen deslotura dakar, eta azkenean gatazkaren izaera politikoa lehortzen du guztiz, egiatan zapaltzailearen bertsioa onartzen, etsaiarena. Ondorioz, ez da soilik bide singular horretan aurrera egiteak ez duela helburu estrategikoen lorpenean laguntzen, baizik eta guztiz kaltegarria dela borroka iraultzailearentzat.

Azkenean, deslotura estrategia hau kalterako izatera iristen da onartzen eta aurrera eramaten dutenentzat, eta euren diskurtsoekin guztiz kontraesankorra, bai behintzat bilatzen dituzten helburuak beste batzuk ez badira, izan ere erabilitako energia eta denbora horiek ez baitira helburu historikoen eskuratze horretarako erabiliak, haiek dioten bezala. Jokutzen duten eremu horietan hobekuntzak lortzen saiatzen baino ez dira, baina beti borroka orokorraren deslotura horri esker eta gatazka politiko bati eta bere aktoreei, behintzat alde iraultzailean, auresuposatzen zaie izaerarekin zerikusirik ez duten eta politikoki eboluzio bat exijitzen duten baldintza batzuen azpian. Lanabes hau ez zaigu balio, hemen ahalegin indibidualak ez du kolektiboan batzen, ez da aurrera egiteko, gatazka gainditzeko eta eremuak irabazteko baliogarria.

Che-k esan zuen *"iraultza batean irabazi ala hil egiten dela hau benetakoa bada"* eta, nik, nire egoera xumetik, gehituko nioke irabazten dela benetakoa den bitartean eta hiltzen dela

oinarritik, esentziatik desarmatzen hasi bezain pronto, iraganarekin, herentziarekin mozten dugunean, eta izan ginena ezabatzen saiatzen garenean, aurrera ez egitea hautatzen dugunean, irabazitako lurraldea uzten dugunean eta aitzakiak erabiltzen ditugunean praktika iraultzaile eta kontsekuentetik urruntzen diren jarrera eta diskurtsoak legitimatzeko.

Bidearen egiazkotasuna gure ekintzen koherentzian eta gure intentzioen gardentasunean islatzen da. Inor ez dago erronka hauek onartzeko behartuta, militante errebelde eta iraultzaileak izateko behartuta, baina eremu honetan ez dute balio anbiguetateak, itxurakeriak, engainuak, nahasketak... Jarrera hauek arduragabekeriaz beteta daude, garesti ordaintzen dira, irabaztea eta urrats bakoitzean libre bihurtzen gaituen gauza bakarraren desagerpen progresibo eta etengabearekin ordaintzen dira: borrokaren desagerpenarekin.

Militante eta preso politikoa izatea ez dela erreza esaten hasi naiz. Ez, ez da. Zorrotza eta gogorra da, baina iraultza gure eskuen artean hiltzea nahi ez badugu, egin dezagun sinesgarria, egin dezagun benetakoa. Ez dezagun ezer galdutzat eman, aurrera egiten jarrai dezagun, handitzen jarrai dezagun, borroka egiten jarrai dezagun. Gure eskuetan baino ez dago.

“Gizakiak daukan gauzarik preziatuena bizitza da, behin ematen zaio eta hutsean igarotako urteengatik min torturatzaille bat ez sentitzeko moduan bizi behar da, lotsak iragan doilor eta zitalagatik erre ez gaitzan”. Nikolai Ostrovski.

Solo depende de nosotr@s

Jon Kepa Preciado Izarra, preso político vasco.

Ser un militante consecuente no es fácil, menos aún cuando te encuentras bajo llave, dispersad@ y en manos del enemigo. En cualquier parte del mundo, oír que hay presos políticos es entender que hay un conflicto político vivo, un conflicto político debido a la situación de falta de libertad, de democracia real, y por la existencia de esa dominación fascista y patriarcal de una clase contra la inmensa mayoría de la población.

Esto también es señal de que ahí hay gente comprometida, que se ha organizado y ha tirado y tira de esfuerzo, de dignidad, de coherencia, poniendo en riesgo su presente y su futuro, así como su vida, al elegir la lucha revolucionaria, la revuelta y la desobediencia para defender sus derechos y su dignidad como clase, para sobrevivir como pueblo y para ganar terreno al fascismo.

Por lo tanto, la existencia de pres@s polític@s nos dice que existe opresión, represión y leyes excepcionales, de la misma forma que nos tiene que dar a entender que sigue habiendo defensa, respuesta y lucha contra todo ello, y también compromisos en el marco de la consecución de los objetivos que les llevaron a ser detenid@s, torturad@s y encarcelad@s por muchos años.

La lucha particular contra la represión policial y carcelaria, como otras, tiene que estar ligada con la lucha general contra la opresión nacional y de clase que sufrimos. No se puede desligar una de otra, no se puede desintegrar el «todo». Esta descomposición trae la despolitización de los diferentes campos de lucha, trae la desvinculación de las reivindicaciones que en ellos se dan con su base y razón política, y finalmente seca completamente el carácter político del conflicto, asumiendo de facto la versión del opresor, del enemigo. Por lo tanto, avanzar en ese camino singular no solo no ayuda en la consecución de los objetivos estratégicos, sino que es totalmente nocivo para la lucha revolucionaria.

Al final, esta estrategia de desvinculación llega a ser contraproducente contra las personas que la aceptan y la levantan a cabo, así como totalmente contradictoria con sus discursos, a no ser que al final sean otras las metas que busquen, ya que esa energía y ese tiempo invertido no están puestos en la conquista de los objetivos históricos como ellos pregonan. Simplemente intentan conseguir mejoras en esos campos en donde actúan, pero siempre gracias a esa desvinculación de la lucha general y bajo unas condiciones que exigen políticamente una evolución (involución) que nada tiene que ver con el carácter que se presupone a un conflicto político y a los actores de él, por lo menos en la parte revolucionaria del mismo. Esta herramienta no nos vale, aquí el esfuerzo individual no suma en lo colectivo, no es válido para avanzar, para superar el conflicto, para ganar terreno.

El Che dijo que «en una revolución se gana o se muere si esta es verdadera», y yo añadiría, desde mi modesta posición, que se triunfa mientras es verdadera y se muere en cuanto la desarmamos por la base, por la esencia, cuando cortamos con el pasado, con la herencia, e intentamos borrar lo que fuimos, cuando elegimos no avanzar, cuando cedemos el territorio ganado y cuando usamos excusas para legitimar posturas y discursos alejados de la práctica revolucionaria y consecuente.

La verdad del camino se refleja en la coherencia de nuestros actos y la transparencia de nuestras intenciones, nadie está obligado a asumir estos retos, a ser militantes políticos rebeldes y revolucionarios, pero en este terreno no vale la ambigüedad, el aparentar, el engaño, la confusión... Estas actitudes están llenas de irresponsabilidad, se pagan caro, se pagan con la desaparición progresiva e imparable de lo único que nos hace triunfar y ser libres a cada paso: la lucha.

He empezado diciendo que no es fácil ser militante y preso político. No, no lo es. Es exigente y duro, pero si no queremos que se nos muera en las manos la revolución, hagámosla creíble, hagámosla verdadera. No demos nada por perdido, sigamos avanzando, sigamos creciendo, sigamos luchando. Solo depende de nosotros.

Lo más preciado que posee el ser humano es la vida, se le otorga una sola vez y hay que vivirla de forma que no se sienta un dolor torturador por los años pasados en vano, para que no queme la vergüenza por el ayer vil y mezquino.

—Nikolai Ostrovski.

<https://eh.lahaine.org/gure-eskuetan-baino-ez-dago>